

KIMIKA2 : KIMIKA ORGANIKA: ISOMERIA ARIKETAK (1)


ISOMERIA KONTZEPTUA LANTZEKO

1.-Idatz ezazu konposatu bakoitzari dagokion formula molekularra eta erdi garatua.

- a) Hexanoa
- b) 2,2-dimetil butanoa
- c) Metil-ziklobutanoa
- d) Etil-metilamina
- e) 2-pentenoa

2.- Formula itzazu diklorobentzenoaren isomeroen egiturazko formulak. Zein da horien formula enpirikoa?

3.- Ondorengo konposatu bikoteak izanik arrazonatu elkarrekiko isomeroak diren ala ez, eta izanez gero, zein motako isomeria duten. Izendatu konposatu guztiak.



4.- Ondorengo konposatu bikoteak izanik zehaztu elkarrekiko isomeroak diren ala ez, eta izanez gero, zein motako isomeria duten.

- a) 2-metil-fenol eta fenil-metil-eter
- b) Ziklohexano eta metil-ziklopentanoa
- c) Etanamida eta etil amina
- d) 2,2-dimetil-propano eta ziklopentano
- e) 2-butanol eta 1-butanol
- f) Bentzeno eta 2-metil-1,3-ziklopentadieno
- g) Azido propanoikoa eta metil azetatoa.
- h) Metil-butano eta dimetil-propano
- i) Buteno eta ziklobuteno
- j) Propanamida eta 2-nitro-propeno
- k) 2-pentanona eta 3-penten-1-ol

KIMIKA2 : KIMIKA ORGANIKA: ISOMERIA ARIKETAK (1)

KONPOSATUAREN FORMULA EDO IZENA EMANDA ISOMEROAK IDATZI

5.- Ondorengo formulak dituzula, formulatu eta izendatu ahal dituzun konposatu oxigenatu guztiak:

A) CH_4O ; B) $\text{C}_2\text{H}_6\text{O}$; C) $\text{C}_2\text{H}_4\text{O}_2$; D) $\text{C}_3\text{H}_6\text{O}$; E) CH_2O

6.-Idatz itzazu pentanoaren isomeroak.

7.- Idatz itzazu hexanoak dituen isomero guztiak.

8- Idatz itzazu konposatu hauen posizio isomeroak: a) Heptano-3-ona/3-heptanona
b)Butan-1-ola

9.- Formulatu eta izendatu:

- a) $\text{C}_3\text{H}_8\text{O}$ formula duten 3 isomeroak.
- b) $\text{C}_3\text{H}_6\text{O}$ formula duten 2 funtzio- isomeroak.
- c) $\text{C}_3\text{H}_9\text{N}$ formula duten 3 aminak.

10.- 1,3-diklorobuten-2-eno kloroekiko konposatuaren posizio isomeroak formulatu eta izendatu.

11.- Ondorengo formulak dituzula, formulatu eta izendatu ahal dituzun konposatu guztiak:

a) $\text{C}_2\text{H}_5\text{ON}$; b) $\text{C}_2\text{H}_3\text{N}$

12.- Zein da konposatu honi $\text{C}_4\text{H}_{10}\text{O}$ dagokion talde funtzionala?. Idatzi ezazu konposatu honen funtzio isomero bat.

13.-Bila itzazu formula honi $\text{C}_4\text{H}_{10}\text{O}_2$ dagozkion talde funtzionalak .

14.-Idatz itzazu formula honi $\text{C}_5\text{H}_{10}\text{O}$ dagozkion funtzio isomeroak.

15.- $\text{C}_3\text{H}_6\text{O}_3$ formula duten azidoak formulatu eta izendatu.

KONPOSATU BATEN MASA MOLARRA EMANDA ISOMEROAK IDATZI

16.- Masa molarra 86 duen alkanoaren isomero guztiak izendatu eta formulatu. Isomeria mota aipatu eta azaldu zertan datzan.

17.- Idatz ezazu 88 masa molarra duen azido monokarboxilikoaren izena eta formula, insaturazio bakarra duela jakinik. Idatzi isomeroak.

18.- 70 masa molarra duten alkeno guztiak eman.

19.- 58ko masa molekularra duten hidrokarburoak formulatu eta izendatu.

MASA ATOMIKOAK

C=12; O=16; H=1; N=14